



OT-014/12-PH PLAN HIDROLOGIKOA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BARRUKO ARROEN EREMUA

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen batzarrak urriaren 11n Gasteizen egin zuen 4/2012 bilkuran, besteak beste, ondoko erabaki hau hartu zutela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

“I. Lurralde-antolamenduaren arloan:

“Kantauri aldeko ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Eremua” espedienteari aldeko txostena egitea, ondokoek ezarritakoari jarraiki: Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 27. artikulua; Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen lehenengo xedapen gehigarria eta 13.8 artikulua; eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko batzordearen funtzioak, eraketa eta funtzionamendu araubidea finkatzen duen urriaren 2ko 263/1990 Dekretuko 2.1 eta 5.2 artikulua, azaroaren 2ko 397/1999 Dekretuak aldarazitakoa.

II.- Ingurumenaren arloan:

Ingurumenaren arloan, Ingurumeneko sailburuordeak 2012ko urriaren 1ean emandako Ebazpena hartuko da kontuan. Ebazpen hori “Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Plan Hidrologikoa” espedientearen gaineko ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena emateko da eta URA-Uraren Euskal Agentziak sustatu du.

III. Espedientean gehitzea Ingurumeneko sailburuordeak 2012ko urriaren 1ean emandako Ebazpena (I. eranskina). Ebazpen hori “Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Plan Hidrologikoa” espedientearen gaineko ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena emateko da eta ziurtagiri honetan doa erantsita.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 15ean.



IDAZKARIA

Izpta.: Tomás Orallo Quiroga